

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Ebazpena, 2023ko apirilaren 18koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, ikertzaile doktoreen 2023rako Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunek atzerriko lantokietan egiten dituzten egonaldietan mugikortasun-baldintzak eragindako gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia ebazten duena (Ikermugi+).

Hezkuntza sailburuaren 2023ko otsailaren 21eko Aginduaren bidez (martxoaren 1eko EHAA, 42. zk.), 2023an doktoreak diren ikertzaileen Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunen atzerriko destino-zentroetako egonaldietan mugikortasun-baldintzak eragindako gastuak finantzatzeko laguntzetarako deialdia egin zen, eta Aginduaren 10. artikuluan jasotzen den bezala, honakoa

## E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen 2023rako Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunek atzerriko lantokietan egiten dituzten egonaldietako ostatu- eta mantenu-kostuak finantzatzeko laguntzak, zenbatekoa zehaztuz.

Bigarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, jakinarazpena eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 18a

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA